

# Napoleondar Gerren azken aurreko bataila euskal lurraldeetan

Aragon Ruano, Alvaro

## 1. Urte oparora ospakizunetan

2013an zehar 1808-1813. urteen bitarteko Independentzia Gerraren azken gertakarien ospakizunak egin ziren Euskal Herrian; hain zuzen ere, gerraren bukaeran jazotako zenbait gertakarien 200. urtemuga ospatu zen. Agian, entzutetsuenak Gasteizko bataila, Donostiako bataila, setioa eta suntsiketa, eta Irungo San Martzialgo gudua badira ere, Euskal Herriko beste leku batzuetan ere (Araba, Nafarroa, Gipuzkoa eta Iparralde) urtemugak ospatu zituzten.

Gasteizko bataila dela eta, Argantzonen martxo eta iraila bitartean erakusketa bat egon zen ikusgai. Gasteizen bertan, ekainan zehar, hiriko Armagintza Museoan Gasteizko bataila oroitzeko monumentuaren eta garaiko karta-jokoen inguruko erakusketak egin ziren. Halaber, eduki historikoko mahai-inguru eta hitzaldiak, bisitaldiak hiritik eta garaiko musika kontzertuak eta antzerkiak ospatu ziren, eta ekainaren 21ean bataila bera oroitu zen, berregite baten bidez.

Donostian ere ospakizun handiak egin ziren urtean zehar. Donostiako udalak programa zabala jarri zuen abian, kasu askotan Eusko Ikaskuntzaren laguntzarekin: hitzaldiak, belaunaldien arteko topaketak, bisita gidatuak eta irakurketa publikoak. Udalak berak, berriz, urtean zehar mota ezberdineko hainbat ekitaldi egin zituen: 27 kontzertu, dantza eta antzerki, 16 hitzaldi, argitalpenak, 6 bisita gidatuko zikloa, 12 erakusketa, 5 ikus-entzunezko emanaldi, 5 omenaldi, berregite historikoak, jarduera gastronomikoak eta abar. Haatik, ekintza goraiagarrienak, du-darik gabe, ekainaren 29a eta uztailearen 2a bitartean udaletxearen aurrean egindako ikus-entzunezko ekitaldia izan zen, abuztuaren 31n Alde Zaharraren inguruan egindako setioaren berregiteak eta *Donostia birsortzen* izenpean Zubietan irailaren 7an egindako ospakizun hunkigarria. Aipagarria izan zen ere *Bake ituna* deritzan proiektua, bigarren mendeurrenaren ospakizunak 2016ko Europako Kultur Hiriburutzarekin lotzen zituena. Haren lehenengo emaitza *1813. Donostiaren setioa, sutea eta berreraikitzea* izan zen, DSS2016 Fundazioak eta San Telmo Museoak antolatuta. Izen bereko erakusketa San Telmo Museoan eta Donostiako Un-

tzi Museoa egon zen ikusgai urtean zehar, eta beste bi erakusketa egin ziren osagarri moduan: hitzaurre gisa, Baionako Euskal Museoa 1793. *Konbentzio gerra* izeneko eta, epilogo gisa, Ormaiztegiko Zumalakarregi Museoa 1823. *San Luisen Ehun Mila Semeak* izeneko. Horrekin batera, azaroan gerrek suntsitutako Europako hirien bilkurak Dresden, Sarajevo, Milan, Wroclaw, Gernika-Lumo, Granoillers, Madril eta Donostiako ordezkariak bildu zituen, eta, urtean zehar, *Hiruxulon bizi* 1813 erakusketa ibiltaria kultur etxez kultur etxe ibili zen.

Irunen ospakizunak xumeagoak izan ziren, eta denboran bilduak. Hango jaiekin batera, bisita gidatuak, berregite historikoa, meza, omenaldia hildakoei eta herri bazkaria antolatu zituzten, bertan erakunde zibil eta militarren ordezkariak zeudela. Beasainen eta Ordizian Lemniskata Taldeak Senpere zubian gertaturiko liskarren inguruko hitzaldiak antolatu zituen Igartza Jauregian. Tolosan ere zenbait ekitaldi egin ziren urtemugaren inguruan —ia bost urtez eman zuten udalak eta Eusko Ikaskuntzak *La Bayoneta* egunkari napoleonikoa argitaratzen—, batik bat hitzaldiak antolatu ziren eta garaiko alardearen berregitea.

Bera eta Lesaka artean ere, herritar talde batek —San Migel Zubiko Lagunek— San Migel zubian britainiar eta frantziarren arteko liskarrak oroitzeko, hitzaldiak, antzerkia eta abar antolatu zituzten urtean zehar, baina batik bat abuztuaren 31n eta irailaren 1ean. Arbizun ere, uztailaren 22an, ikuskizun edo kaleko antzerki baten bidez, gudaroste napoleonikoak ihesian zihoazenean herriaren suntsiketaren 200. urtemuga ospatu zuten herritarren parte hartzearekin. Iruñean bertako Udalak setioaren bukaera ospatu zuen urriaren 25a eta 27a bitartean zenbait hitzaldi —*Sociedad de Estudios Históricos de Navarra* eta *Foro para el Estudio de la Historia Militar de España* antolatuta—, bisita gidatu eta bataillaren berregite eta guzti antolatuz.

Iparraldeko ospakizunek ere, Hegoaldekoen ikusgarritasuna ez izan arren, oroitu nahi izan zituzten garai haiek: Biriatur, Ziburun eta Donibane Lohizunen, Senperen edo Urruñan, Urdazubi eta Errobiko batailen figurazioak eta desfileak ospatu ziren.

Jakin-minak eta interesak ere eraman zituen, nonbait, egunkariak eta aste-kariak gehigarri bereziak edo, gutxienez, artikulua, eta aipamen bereziak egitera. Aipagarrienak *El Diario Vasco* —gaietan espezialistak diren egileak bildu zituena— eta *Argia* aldizkariak egindakoak izan ziren.

Ekintza hauetan guztietan herritarren parte hartzea goraiatu behar da, eta baita bakearen aldeko eta gerrak eragiten dituen ondorioen aurkako diskurtsoak eta apustua ere; ospakizunen helburu nagusia gertakari haien historia eta oroimena berreskuratzea izan zen, berriro gerta ez daitezten. Baina zer da ospatzen edo, hobe esanda, oroitzen zena? Aipatutako gertakariak ezin dira modu isolatuan ulertu. Egia esan, testuinguru zabalago baten zatia besterik ez ziren izan, herri bakoitzeko norbanakoarentzat esanahi berezia izan arren. Gertakari hauek guztiak Gerra Napoleonikoen testuinguruan kokatu behar dira ezinbestean.

## 2. Gerra Napoleonikoak (1803-1815) eta Espainiako gerra (1808-1813)

Gerra Napoleonikoen eta Espainiako gerraren gertakariak ondo ezagunak dira, eta, beraz, ez gara xehetasunetan sartuko; bai, ordea, gerra horien arrazoietan eta ondorioetan, ezinbestekoak baitira Euskal Herrian gertatutakoak ondo ulertzeko. Alde batetik, noski, Napoleon Bonaparte bezalako pertsonai baten nahiak goraiatu behar dira. Baina, bestetik, Suedia, Polonia eta Inperio Otomandarraren gainbehera eta Europako Ekialdearen menpekotasuna. Ezin da ahaztu Ingalaterra eta Frantziaren arteko guda eta borroka komertziala ere, ia XVII. mendearen bukaeran hasi zena. Gerra Napoleonikoak ez ziren hain ezberdinak izan aurreko gerrekin alderatuta, baina zenbait ezberdintasun garrantzitsu izan zituzten. Europa osoan ia 4 milioi pertsona hil ziren, horietatik ia erdia frantziarrak. XVIII. mendeko gerra adeitsua alde batera utzi, eta gerra totalari eman zitzaion hasiera. Azken honetan, gudarosteak ez ziren garai bateko errege gudaroste garestiak, ejertzito nazionalak baizik, zeinetan izen-emate edo soldaduska derrigorrezkoa zen. Horrek ondorio garbia izan zuen: XVIII. mendean zehar zuzeneko batailak ekiditen baziren, hemendik aurrera batailak maizago emango ziren; ia berrogei bataila gertatu ziren. Ejertzitoak inoiz baino handiagoak bilakatu zirenez, mugikortasun arazoak sortu ziren. Horregatik, dibisioetan banatu ziren gudarosteak, eta guda estrategia aldatu. Egun barreko batailak ia ezinezkoak gertatu ziren, eta, aldiz, ia aste osoko batailak orokortu ziren. Beraz, garai berri baten aurrean gaude. Ondorioz, Frantziaren loraldia bukatu eta Britainia Handiaren Inperioa sortu zen. Aldi berean, Estatu modernorantz azken pausoa eman zen: gerraren beharrek Estatu modernoaren, administrazioaren eta burokraziaren garapena ekarri zuten<sup>1</sup>.

Testuinguru horretan gertatu zen *Espainiako Gerra*, *La Guerre d'Espagne*, *Peninsular* edo *Spanish War*, frantsesek zein britainiarrek deitu zioten bezala. Gerra benetan odoltsua izan zen, bertan 200.000 frantziar eta 300.000 espainiar hil baitziren. Egia esan, *Independentziaren Gerra* kontzeptua ez zen garaian erabili, ondoren sortu zen. Hain zuzen ere, hogeigarren eta hogeita hamargarren hamarkadetan sortutako eta berrogei eta berrogeita hamargarren hamarkadetan, Espainiar nazionalismoaren garapenarekin batera, orokortutako terminoa dugu<sup>2</sup>.

1808 eta 1812 bitartean, gudaroste Napoleonikoak Penintsula ia osoan egon arren, ez zuten benetazko menpekotasuna. Frantziarren estrategia Espainiako hiri nagusienak kontrolatzea zen, eta hori izan zen beren akats nagusienetarikoa: beren gudarosteak isolatuak geratu ziren, elkarren arteko loturarik gabe edo behintzat lotura zailarekin, lur gehiengoa kontrolatu gabe, eta, are garrantzitsuagoa izan zena, bideak menperatu gabe. Napoleonentzat eta haren estrategia kontinental-

1. ESDAILE, Charles. *Las guerras de Napoleón: Una historia internacional, 1803-1815*, Barcelona: Crítica; 1-16 orr.

2. ÁLVAREZ JUNCO, José. "La invención de la Guerra de la Independencia". In: *Studia Histórica. Historia Contemporánea*, XII. alea, 1994; 75-99 orr. eta *Mater Dolorosa. La idea de España en el siglo XIX*, Madrid: Taurus, 2001.

rentzat Parisetik Lisboa-ra zihoan bidea ezinbestekoa zen; beraz, Baiona-Behobia-Donostia-Gasteiz-Burgos-Madril ardatza babestea hil ala bizikoa gertatu zitzaion gizonak, armak, abereak edo jakiak garraiatzeko eta, horrela, ejertzitza ondo hornitzeko<sup>3</sup>.

1808ko maiatzerako frantziarrek ia Penintsula osoa bereganatu zuten, espainiarren erresistentzia izan arren. Baina 1812an dena aldatu zen —bai Gerra Napoleonikoetan bai Penintsulako Gerran—. Errusiako kanpaina prestatzen ari zela, Napoleonek 120.000 soldadu atera zituen Espainiatik, eta horrek aukera paregabea eman zien bai Wellesleyri eta bai espainiarrei frantsesen aurka egiteko. 1812aren hasieran Wellingtonek Ciudad Rodrigo setiatu zuen, bai eta urtarrilaren 19an hartu ere. Ondoren, Badajozeko setioa martxoaren 16an hasi, eta apirilaren hasieran bukatu zen. Bi kasuetan tropa aliatuek (britainiarrek, portugaldarrek eta espainiarrek berek) gehiegikeri nabarmenak egin zituzten: Ciudad Rodrigo eta Badajoz arpilatu zituzten, eta biztanle asko bortxatu eta erail. Ciudad Rodrigoren kasuan, bertan egondako sir William Patrick Napierren esanetan:

“The excesses committed by the allied troops were very disgraceful. The Spanish people were allies and friends, unarmed and helpless, and all these claims were disregarded. “The soldiers were not to be controlled”. That excuse will however scarcely suffice here, because colonel Macleod of the forty-third, a young man of a most energetic spirit, placed guards at the breach and did constrain his regiment to keep its ranks for a long time after the disorders commenced; but as no previous general measures had been taken, and no organized efforts made by higher authorities, the men were finally carried away in the increasing tumult.”<sup>4</sup>.

Badajozen kasuan, oso adierazgarriak dira Badajozen egondako Robert Blakeyren hitzak:

“Para las mujeres no había salvación ni siquiera en las iglesias y cualquiera que interviniese u ofreciese resistencia podía estar seguro de recibir un disparo. Todas las casas ofrecían un escenario de saqueo, libertinaje y efusión de sangre cometidos con desenfadada crueldad... por nuestra soldadesca y en muchos casos vi a los muy salvajes arrancar los pendientes de las orejas de hermosas mujeres... Cuando los salvajes llegaban a una puerta que había sido cerrada o atrancada, ponían... la boca de una docena de mosquetes... contra la parte de la puerta en que se hallaba la cerradura y... disparaban todos juntos al interior de la casa y a sus estancias sin cuidado por los que estuvieran dentro... Se disparó a hombres, mujeres y niños... solamente... por pasatiempo; se cometieron en público todo tipo de ultrajes... y de un modo tan brutal que un relato fidedigno sería... ofensivo para la humanidad. No se mantuvo ni el menor rastro de disciplina... La soldadesca enfurecida más parecía una jauría de perros del averno vomitados por las regiones

3. SÁNCHEZ ARRESEIGOR, Juan José. *Vascos contra Napoleón*, Madrid: Actas Editorial, 2010; 50-51 eta 101-103 orr.

4. NAPIER, William Patrick. *History of the War in the Peninsula and in the South of France*, 1. alea, Oxford, 1836; 441 orr.

5. ESDAILE, Charles. *La Guerra de la Independencia: una nueva historia*, Barcelona: Crítica, 2003; 437-438 orr.

infernales para la eliminación de la humanidad que... un ejército británico bien organizado, valeroso, disciplinado y obediente.”<sup>5</sup>.

Ikusiko dugun moduan, kontakizun honek antzekotasun handiak ditu Donostian gertatutakoarekin.

Baina garaipen erabakigarria Arapileseko gudua izan zen, 1812ko uztailaren 22an, Madrileko bidea askea uzten baitzuen. Aliatuen aurrera egiteak ia urria arte iraun zuen, baina Burgos ezin izan zuten gainditu. Egia esan, ia 1813ko maiatzera arte, gauzak bere horretan geratu ziren, mugimendu nabarmenik gabe. 1812ko kanpaina bukatu baino lehen, Wellington espainiar ejertzitoen buruzagi izendatu zuen Batzar Nagusiak. Kargu hori zuela, maiatzaren 22an azken eraso hastea erabaki zuen. Haren ejertzitoaren zati batek Salamanca aldera egiten zuen bitartean, besteak, Grahamen agindupean, Iparraldera egin zuen. Ia hilabete baten ondoren, eta borrokarik gabe, frantsesek Mantxa, Leon eta Gaztela Berritik alde egin zuten. Lehen esan bezala, frantsesentzat ezinbestekoa zen Ebro arroa menperatzea Europako ardatz nagusia bere esku mantendu ahal izateko; horregatik, azkenean, ekainaren 12an Burgos utzi, eta Gasteiz aldera egin zuten<sup>6</sup>.

Ordurako, Espainiako 7. Ejertzitoak Nafarroako, Euskal Probintzietako, Kantabriako, Burgosko eta Errioxako frantsesak zailtasunetan jarriak zituen, Bilbo eta Santoña setiatuak baitzeuden, eta Bermeo eta Castro Urdiales espainiarren eskuetan. Nafarroan, Lizarra eta Tafalla Minaren esku zeuden, eta Gezaltza Añana eta Bureba beste lineako errejimenduen esku. Bukatzeko, Frantziarako bidea mehatxupean zegoen. Horretaz aparte, frantses buruzagien arteko elkar ulertze ezak eta aginduen atzeratzeak frantsesen antolaketa eta gaitasuna baldintzatu zituen: Napoleonen hasierako aginduak 40 egun beranduago iritsi ziren, ohikoena 15-20 egun zirenean<sup>7</sup>.

### 3. Azken aurreko bataila euskal lurretan

#### 3.1. Gasteizko Bataila

Jose I.a, Jourdan jeneralarekin batera, Gasteizen prest agertu zen tropa aliatuei aurre egiteko. Momentu hartan, Wellingtonen argitasunak eta Iparraldean zebiltzan gerrillen paperak sekulako garrantzia izan zuten. Josek eta Jourdanek uste zutenaren kontra, Wellingtonek ez zuen zuzenean Gasteiz aldera egin, eta Burgostik Santanderrera zihoan bidea hartu zuen, Bilbo bereganatzeko; frantsesak konturatu

---

6. ARTOLA, Miguel. *La Guerra de la Independencia*, Madrid: Espasa Calpe, 2007; 18-35 orr. eta GÓMEZ DE ARTECHE, José. *Guerra de la Independencia: historia militar de España de 1808 a 1814*, 1. alea, Madrid, 1868; 170-249 orr.

7. PARDO DE SANTAYANA, José. “La Batalla de Vitoria”. In: *Revista Ejército*, 811, 2008; 94-103 orr.; GARCÍA FUERTES, Arsenio. *Los granaderos de Castilla y el Séptimo Ejército Español 1811-1813. Génesis y Victoria de una Nación en Armas*, Madrid: FEHM, 2009; LASA ESNAOLA: *Jauregui el guerrillero. (Un pastor vasco que llegó a mariscal)*. La Gran Enciclopedia Vasca Bilbao, 1973; 149-151 orr.

orduko berandu zen. Jourdanek Portugaleko Ejertzitoari Orduñarantz joateko agindu zion. Clauzelek Iruñea utzi zuen lau dibisioekin, eta Logroñotik Pancorbo aldera egin zuen, baina ez zen garaiz iritsiko. Orduan, Wellingtonek, Bilbora abiatu beharrean, Ekialderantz jo zuen Gasteiz eta Lautada aldera. Giron jeneralak Balmaseda aldera egin zuen, eta Longak Orduñara. Beraz, frantses gudarostearen gorputza banandu egin zen, eta frantsesek ezin izan zituzten bere indar guztiak erabili. Reyll jeneral frantsesak atzera egin zuen ekainaren 18an, Gezaltza Añana utzita eta Baias ibaiko Hegoaldera pasatuz. Bizkaiko batailoien mehatxua zela eta Bergaran zegoen Foy jeneralak bertan geratzea erabaki zuen Bizkaiko bidea babesteko. Maucune jeneralak Frantziarantz zihoan konboia babestu zuen: bertan Jose I.aren altxorra eta frantsestu asko zihoazen. Urretxuko Jauregi gerrillariaren mugimenduek Erret bidean batailan parte hartuko ez zuten 6 dibisio erabiltzera behartu zieten frantsesei. Ekainaren 20an, Wellingtonek, Subijana de Morrillasko kuartel nagusian zegoela, bere gudarosteak zabaltzea erabaki zuen, frantses indarrak ahuldu nahian. Ekainaren 21ean gertatu zen Gasteizko bataila famatua, eta bertan 78.000 aliatuk 90 kanoiekin eta 59.000 frantsesek 140 kanoiekin hartu zuten parte. Bataila hasi zenean, Jourdan gaixo zegoen, eta indar frantsesen buru kontu militarrentzat gaitasun gutxi zuen Jose I.a zegoen. Garaipena erraza izan zen, eta arratsaldeko bostetan aliatuak Gasteizen sartu ziren; Alava jeneralaren bitartekaritzari esker, aliatuek ez zuten Gasteiz arpilatu. Frantsesek eta Jose I.ak lehenago alde egin zuten Frantziako bidetik: zati batek Iruñea aldera jo zuen, gero Baztan eta Donibane Lohitzunera pasatzeko, eta bidean zenbait herrixka erre zituzten, Arbizu edo Bakaiku kasu —hauetako batzuek Irurtzunetik Iparraldera jo zuten—; eta beste zati batek, Arlabanetik Gipuzkoa aldera. Bitartean, gudaroste aliatuak Jose I.ak utzitako altxorra arpilatu zuen. Dena den, batailaren ondorioz sortutako galerak handiak izan ziren: frantsesen artean, 1.500 hildako, 8.000 zauritu eta 2.700 atxilotu; aliatuen artean, 5.000 baja, hildako eta zaurituen artean, 3.300 britainiar, 1.000 portugaldar eta 600 espainiar<sup>8</sup>.

Gasteizko porrota jasan ondoren, eta Frantziako bidea hartu zutela, Bergaran zegoen Foy jeneralak Bizkaia eta Gipuzkoa osotik sakabanatuak zituen gudarosteak bildu, eta Soraluze eta Arrasate artean zabaldu zituen, frantziarren atzera-pausoak babestearren. Ekainaren 22an, Longa eta Giron Gipuzkoara sartu ziren Arlabanetik, handik sartutako frantses gudarosteen atzetik, eta Arrasate eta Leintz-Gatzaga hartu zituzten. Baina Foy jeneralak Bergararik Arrasateraino joan, eta aliatuak geldiarazi zituen hiru aldiz. Ekainaren 23an Wellingtonek Grahami Gipuzkoara San Adrianetik sartzeko agindu zion, eta hura Segurara jaitzi zen. Egun horretan, Bergara utzi, eta Urretxura joan zen Foy. Egun bat beranduago, Maucuneren eta italiarren gudarosteak Ordizian eta Beasainen sartu ziren, eta Grahamen gudarosteei aurre egiten saiatu ziren. Hantxe gertatu zen Senpere zubiaren liskarra: bri-

---

8. PARDO DE SANTAYANA, José. "La campaña de Vitoria de 1813". In: *Revista de Historia Militar*, Año LVII, 1, 2013; 63-102 orr. eta PRIEGO FERNÁNDEZ DEL CAMPO, José. *Guerra de la Independencia, 1808-1814*, VIII. alea, Madrid: Editorial San Martín, 2004; 323-324 eta 459 orr.


tainiar-portugaldarren zati batek Maucuneren gizonak Beasaindik kanporatu zituzten, 200 hildako utzita, eta beste zati batek, berriz, italiarrak, 90 hildako edo zauritu eraginez. Horren ondorioz, Foy jeneralaren indar guztiek Tolosarantz egin zuten. Bide hori hartu zuten ere Grahamek, Longak eta Gironek, eta Castrotik eta Azpeititik zetorren Mendizabalek ere.



Gasteizko Bataila (Westall R.A., R.; Fielding, T. (grabatzailea) *Victories of the Duke of Wellington*, Printed for Rodwell and Martin, London, 1819, Koldo Mitxelena Kulturunea. Gipuzkoako Foru Aldundia / Koldo Mitxelena Kulturunea, 094 WES VIC, pág. 28-29).

Hurrengo egunean, ekainaren 25ean, Foyk Tolosa indartu zuen, eta gudaroste aliatuak geldiarazten saiatu zen. Borrokak bortitzak izan ziren, frantsesek eta britainiar-portugaldarrek bakoitzak 400 gizon hildako edo zauritu izan baitzituzten —Graham bera zauritua izan zen—. Ekainaren 27an, frantziar konboia Behobia zeharkatuz Frantzia sartzen zen bitartean, Foyk Tolosa utzi, eta Hernanira ailegatu zen, bertan zeuden gudarosteekin bat egiteko. Egun bat beranduago, 2.600 soldaduz osatutako gudaroste honek Urumea ibaia zeharkatu zuen: 700 bat Donostian sartu ziren, beste zenbait Pasaian geratu, eta gehienek Frantzia aldera alde egin

zuten, Oiartzungo bidea hartuta, eta ekainaren 30ean muga zeharkatu zuten. Uztailaren 1ean Getariako goarnizioak itsasoz Donostiara alde egin zuen, eta Foyk Bidasoa zeharkatu zuen; egun horretan Graham Donostiara ailegatu zen.



Gotorlekuak Hernani eta Tolosa artean, (Bacler d'Albe, Louis Albert Ghislain. (Grabatzailea), *Souvenirs pittoresques : tome II : Campagne d'Espagne*, Lithographie de G. Engelmann, Paris, 1820, Koldo Mitxelena Kulturunea. Gipuzkoako Foru Aldundia / Koldo Mitxelena Kulturunea, 094 BAC SOU, pág. 9).

Bitartean, Clauzelek, Gasteizko gudura ailegatzeko astirik izan gabe, ekainaren 22an atzera egin zuen Pancorbotik Logroñoraino. Baina han jakin zuen britainiar-portugaldarrak eta Minaren espainiarrak bere bila zetozela, eta Tudelarantz jo zuen. Azkenean, arriskuaz jabetuta, Zaragoza aldera jo zuen, eta handik Jakara, azkenean muga zeharkatzea lortu zuela uztailaren 14an<sup>9</sup>.

Baina frantziar gudarosteak mugaren beste aldera igaro bezain pronto, bertan geratu ziren, Frantziaren barnealdera jo beharrean. Napoleonek uztailaren 12an Jose erregea bere kargutik kendu, eta Soult mariskala hautatu zuen indar horien guztien buru. Hurrengo hilabetetan 85.000 soldaduk osatutako gudarosteak Penintsulara berriro sartzen saiatuko ziren, Baionan zituzten biltegian homituta, Donostia eta Iruñeko gotorlekuak askatzeko asmoarekin. Mugan gertatuko ziren borrokek ez zuten gerraren bidea aldatuko, eta Gerra Napoleonikoen bukaerari

9. NAPIER, William Patrick. Op. cit., 1842, 5. alea; 567-572 orr.



emango zioten hasiera. Donostiak eta Iruñeak, Mendebaldean, edota Gironak eta Figueresek, Ekialdean, erresistitu bazuten ere, 1813 eta 1814 bitartean gerra frantziar lurraldean emango zen<sup>10</sup>.

### 3.2. Donostiako eta San Martzialgo batailak

Donostiako setioa ezin da ikusi ekintza isolatu bezala, frantziarrak Penintsulatik kanporatzeko saiakera orokorrean sartu behar dugu; horregatik, Donostiakoa, setioa izanda ere, beste bataila bat izan zen. Donostia hartzea garrantzitsua zen aliatuentzat; alde batetik, beren ezkerraldea babestearren eta bertan biltegiak, zaurituak eta gaixoak ateratzearren erretreta gertatuz gero, eta bestetik, gerra Frantziara eramanez gero, kanpotik ekarri behar ziren hornidurak Pasaiatik sartzeko<sup>11</sup>. Ekainaren 28an Tolosatik zetozen Mendizabalen Gipuzkoako eta Bizkaiko batailoiak Donostiara ailegatu ziren Ugartemendia buru zutela, 7.000-8.000 soldaduekin. Hau ikusita, frantsesek San Martin eta Santa Katalinako auzoak erre zituzten aliatuen aurre egitea ekidin ahal izateko. Rey jeneralak bere agindupean nahiko soldadu onak zituen, ez agian zabalean borroka egiteko, baina bai setio bat jasateko: 3.500 soldadu Urgullen —horietako batzuk San Bartolomeko komentuan egon ziren britainiarrek kanporatu arte—; Foy jeneralak Tolosatik ekarritako beste 700; 40 gizon Santa Katalinan; 25 Santa Klarako uhartean; eta 76 kanoi.

Ekainaren 29an Mendizabal San Bartolome eskuratzen saiatu zen, baina ez zuen artilleriarik eta bere soldaduak —Bizkaiko Bolondres Batailoiak— gaizki hornituak zeuden. Uztailaren 3an ingeles itsas armada ailegatu zen Donostiara itsas blokeoa hasteko. Uztailaren 9-10ean Graham ailegatu zen Donostiara 10.000 soldaduekin: Oswalden menpe zegoen Bosgarren Dibisio ingelesa eta Bradforden eta Wilsonen agindupean zeuden portugaldar dibisioak. Grahamek setiatuei ur horniketa eragozteko —Monpasetik Alde Zaharrera zihoan urtegia suntsiturik— Mendizabalen Batailoiak erabili zituen, baina Wellingtonek uztailaren 13an emandako aginduaren ondorioz, Donostiako setiotik atera, eta zati bat Santoñako setiora eta bestea Jaizkibelera bidali zituen, gero Hondarribia hartzeko. Gero, gudaroste hauek ez zuten setioan parte hartuko, eta Hondarribian kokatu ziren Soulten saiakerak eragozteko. Uztailaren 11n Wellington ailegatu zen Hernanitik, eta 1719an Berwickeko Dukeak erabilitako estrategia bera erabiltzea erabaki zuen: Ekialdeko harresitik erasotzea planteatu zuen, Txofreko dunetan artilleria jarriz. San Bartolome eskuratzea agindu zuen uztailaren 15ean, baina bi egun beranduago arte ez zuten hartu, eta baita Hornabeke eta San Martin auzoaren arteko *Rondeaua* (gotorleku borobila) ere. Goi aldeak bere menpe zituztela, ingelesak Ulian, Txofren eta San Bartolomen jarritako kanoi-bateriak bonbak eta granadak hasi ziren botatzen.

10. MOLINER PRADA, Antonio. "La retirada de los ejércitos franceses del País Vasco (1813)". In: LARRINAGA, Carlos (Koord.), *San Sebastián, 1813. Historia y memoria*, Donostia: Hiria, 2013; 72 orr.

11. LARPENT, Francis Seymour, *The private journal of Judge-Advocate Larpent, attached to the headquarters of Lord Wellington during the Peninsular War, from 1812 to its close*, London: Bentley, 1854; 200 orr.



Donostiako eraso itzasoz, (Terry, G.W.; Pound, D.J. 1835, Untzi Museoa. Gipuzkoako Foru Aldundia / Museo Naval)

Uztailaren 14an Wellingtonek Lesakako bidea hartu zuen Pirinioetako Ejertzitoa zuzentzeko, Soult Baionan biltzen ari zen ejertzittoa ikusita. Uztailaren 22an, aurretik Grahamek Rey frantsesari gotorlekua errenditzea eskatu, eta hark muzin egin ondoren, bonbardaketek Amezketako eta Hornoseko kuboetan 50 metroko pitzadura ireki zuten. Egun bat beranduago, uztailaren 23an, pitzadura handitu egin zen, eta 10 metroko beste bat ireki zen Hornos eta San Telmoko gotorlekuaren artean.

Gauzak horrela, Grahamek lehen eraso uztailaren 24ko gauean hasi, eta 25ean zehar egin zuen, nahiz eta Wellingtonek egunez egiteko agindua utzi, irekitako pitzaduretatik sartzeko. Baina ondo hornituak zeuden frantsesek erasoa geldiarazi zuten. Erasoaren buru ziren errejimendu eskoziarrek sarraski eta porrot izugarria jasan zuten (ia 700 galera): 100 hildako eta 400 zauritu gertatu ziren, eta 189 britainiar eta portugaldar soldadu atxilotu zituzten frantsesek. Bi egun beranduago, Wellintongek, Soultek Iruñea laguntzeko ofentsiba abian jarri zuela ohartuta, setioa bertan behera utzi zuen, eta blokeoa hasi<sup>12</sup>.

---

12. OYARZUN, María. "San Sebastián en la Guerra de la Independencia: su ocupación por los franceses en 1808. Sitio y asalto por las tropas anglo-portuguesas 1813". In: *Guerra de la Independencia: estudios*, Zaragoza: Institución Fernando el Católico, 1964; 723-744 orr.

Soultek lehendabizi Iruñea askatzea erabaki zuen, geroago Altsasu eta Tolosatik Gasteiz eta Donostiara abiatzeko, Ebroko arroa eskuratzearen. Saiakera horrek bi bide ezberdin (Orreaga eta Amaiur) hartu zituen uztailaren 25ean Pirinioetako batailari hasiera emanez. Bertan zeuden aliatuek ezin izan zieten eutsi 20.000 eta 40.000 frantsesei, eta atzera egin behar izan zuten Iruñerantz. Handik zazpi kilometrotara Iparralderantz dagoen Soraureneko gudua gertatu zen uztailaren 28 eta 29an. Iruñera ailegatzeko, Soultek hiru eraso ezberdin jarri zituen abian: Orreagako Ibañetatik; Aldudetatik; eta Baztango Otsondotik Belate alderantz. Hasiera batean, frantsesek aurrera egin zuten inongo zailtasunik gabe Iruñea bistan izan arte. Bertan, Soulten erasoek ez zuten ezer lortu Wellingtonen armadaren aurrean. Bigarren egunean Soultek eraso aldatu zuen Lekunberri eta Ultzamatik Tolosara egiteko, baina Belatetik saiatzen ari ziren gudarosteen koordinazio ezak porrot berria ekarri zuen, eta Soultek Frantziara alde egiteko erabakia hartu zuen. Dena den, Mariskalak bere indarrak eta estrategia berrantolatu zituen, oraingo honetan Donostia zuzenean erasotzeko; horretarako, 55.000 soldadu bildu zituen Donibane-Garazin<sup>13</sup>.

Donostiara berriro itzulita, Soraureneko porrotaren ondotik, Wellingtonek setio berrezartzeko agindu zuen. Hurrengo hiru asteetan etengabeko bonbardaketak egin ziren —setio osoan ia 71.000 kanoi jaurtiketa—. Halere, abuztuaren 15ean Napoleon Enperadorearen omenezko ospakizunak egin ziren. Abuztuaren 24ean Pasaiara iritsitako britainiar itsasontziek irismen handiko kanoiak ekarri zituzten. Horri esker, abuztuaren 26an Hornos eta Amezketako kuboak suntsitu zituzten, eta bien arteko harresia ere. Abuztuaren 27tik 30era arte etengabeko bonbardaketa gertatu zen. Azkenik, abuztuaren 29an MacAdamek gezurrezko eraso egin zuen bederatzigarren Errejimenduko 19 eskoziarrekin. Wellingtonek pitzadurak behatu zituen, eta azken eraso abuztuaren 31n goizeko 11etan, marea behearekin, egitea erabaki zuen. Wellingtonek Leith jenerala jarri zuen erasoaren buruan, Robinson, Hay eta Spyrren bosgarren Dibisioko eta Bradforden portugaldar ehiztarien bosgarren Batailoiko 3.000 soldaduekin. Ordurako lehorra zegoen hondarretik eta marea behera aprobetxatuz, Robinsonek eraso hasi zuen. Gauzek okerrera egin zuten batik bat San Juan bastioan zeudenentzat. Baina, bat batean, gauzak inoiz baino zailago zeudenean, frantsesek pitzaduraren azpian zuten bonbaz eta granadaz beteriko bolborategiak eztanda egin zuen. Eraso eta ezindari esker, barnean sartu ziren ingelesak, eta 600-700 frantses atxilotu zituzten. Ordurako, hiriaren bi heren suntsituta zeuden, bonbardaketa eta gertatutako suteak zirela medio<sup>14</sup>.

Britainiarrek eta portugaldarrek hiria abuztuaren 31ko arratsaldean hartu zuten. Arpilatzeak hiru egun jarraian iraun zuen, buruzagi militarrek zenbait neurri hartu arren; hogeitau egun beranduago arte iraun omen zuten lapurretek, Espainiako gu-

13. RODRÍGUEZ INSAUSTI, Fernando. "La batalla de San Marcial, Irún 31 de agosto de 1813". In: *Revista de Historia Militar*, I Extraordinario, 1813; 147 orr.

14. BELMAS, Jacques. *Journaux des sièges faits ou sostenus par les français dans la Péninsule, de 1807 á 1814*, Paris: F. Didot Frères, 1836; 266 orr.

darosteak hirira ailegatu arte. Gehiegikeri horietan soldadu erasotzaileek, Astigarragatik etorritako errefortzuek eta Pasaian zegoen itsas armadako marinelek hartu zuten parte. Zutik geratu zen herenaren sutea Kale Nagusiko Soto etxean hasi zen; Kale Nagusiko merkatarien etxe guztiei su eman zieten, baita udaletxeari eta Konsulatuaeren egoitzari ere. Honekin batera, arpilatzea, lapurreta eta bortxaketak hasi ziren etxez etxe. 1813ko irailaren 1ean bertako biztanleei ateratzen utzi zitzairen. Irailaren 3an Motako gazteluan zegoen Rey jeneralari amore ematea eskatu zioten, baina irailaren 8-9ra arte, frantsesak muniziorik gabe geratu ziren arte alegia, ez zen errendizioa burutu. Irailaren 7an Zubietan elkartu ziren setioa gertatu baino lehen Donostiatik alde egin zuten jauntxoak eta kontzejuko partaideak, eta bertan hartu zuten hiria berreraikitzeko erabakia.

Galeren zenbatekoa soldadu guztiek, erasotzaileek zein defendatzaileek, pairatutako tragediaren adierazgarri dira. Wellingtonen “dispatches”en edo despatxuen arabera, britainiar-portugaldarrek Donostian, 1813ko uztailaren 7tik irailaren 8ra arte 3.793 galera izan zituzten (967 hildako, 2.481 zauritu eta 345 desagertu). Frantziarrek, berriz, 2.200 galera jasan zituzten, hildakoak eta zaurituak zenbatuta, hasiera batean zeuden 4.000 soldaduetatik bakarrik 1.800 biziraun zutela<sup>15</sup>. Galera materialei dagokienez, harresietan barne zeuden 600 etxeetatik bakarrik 36 eta San Bizente eta Santa Maria elizak eta San Telmo komentua geratu ziren salbu —bertan kokatu baitziren mandoen egoitza eta zaurituen hospitalak—, batik bat Trinidad Kalean, baina baita Plaza Zaharraren eta San Bizente inguruan ere. Suntsiketen estimazio ekonomikoa belloizko 102 milioi errealetara igo zen<sup>16</sup>.

### 1. Taula: Donostiako setioan zehar gertatutako britainiar eta portugaldarren galerak (1813)

	1813ko uztailaren 7tik 27ra arte	1813ko uztailaren 28tik abuztuaren 31ra arte		1813ko irailaren 1etik 8ra arte
Aberria	Britainiar-portugaldarrak	Britainiarrak	Portugaldarrak	Britainiar-portugaldarrak
Galerak	1.278	1.716	787	12
Hildakoak	204	572	189	2
Zaurituak	774	1.103	594	10
Desagertuak	300	41	4	-

Iturria: GURWOOD, John, Op. cit., 10. alea, 590 orr. eta 11. alea, 66 orr.

15. GURWOOD, John. *The Dispatches of Field Marshall The Duke of Wellington during his various campaigns in India, Denmark, Portugal, Spain, The Low Countries, and France, from 1799 to 1818*, London: John Murray, 1838, 10. alea; 590 orr. eta 11. alea; 66 orr. eta BELMAS, Jacques. Op. cit.; 266 orr.

16. ARTOLA GALLEGU, Miguel, *Historia de la reconstrucción de San Sebastián*, San Sebastián: Ayuntamiento de San Sebastián, 1963.

Bertakoen artean ez ziren hildako asko gertatu —ahots batzuek esaten du-  
tenaren aurka<sup>17</sup>—, Matias de Lamadriden, 4. Ejertzitoko ofizialak, bere egunkarian  
adierazi zuen moduan:

“Los excesos que cometieron los ingleses, como los portugueses, no tienen cuento, y jamás estas dos naciones se quitaron el horrible borrón que aquí echaron a sus glorias. Cual si la infeliz ciudad fuese de enemigos, los más implacables la saquearon cruelmente, mataron a varios de sus desdichados moradores, y por último la incendiaron, quedando esta hermosa población hecha ceniza, excepto unas 34 casas. Estos despiadados aliados sobrepujaron en maldades a las inmediatas que han cometido los franceses en tantas partes de la pobre, más invicta, España, y que se creían inimaginables por otros que éstos. No hubo doncella, casada, ni niña que no experimentase su brutalidad. Y, en fin, ellos robaron, mataron, incendiaron e hicieron con esta ciudad amiga lo que apenas puede imaginarse hacible (sic) en la más contraria.”<sup>18</sup>.

Arizpe epaileak 1813ko urrian bildutako 79 testigantzen arabera, hildakoen kopurua —horietako batek, Tomas Brevillak, 500 inguruan egon zirela entzun zuela esaten duen arren— ez zen 40 pertsonetara iritsi. Edozein kasutan, kontuan harturik hildakoren bat izango zela sutearen eta erretako eraikinen amiltzearen ondorioz, kopurua igo egingo litzateke, baina inoiz ez 50 hildakoen gainetik. Batzuek ematen dituzten hildakoen zenbakietatik urrun egon arren, zorigaitza zorigaitza izan zen, are gehiago gertatutako bortxaketei erreparatuz gero: Donostian orduan zeuden emakume guzti guztiak bortxatuak ez izan arren —zenbait lekukok adierazten duten bezala—, askok soldaduen gehiegikeriak nozitu zituzten<sup>19</sup>. Honela deskribatu zuen bertan egondako Augustus Frazer britainiarrak:

“The town is not plundered, it is sacked. Rapine has done her work nothing is left. Women have been shot whilst opening their doors to admit our merciless soldiery, who were the first night so drunk, that I am assured the enemy might have retaken part, if not the whole town. The inhabitants who have come out look pale and squalid; many women, but I think few children...The very few inhabitants I saw...were fixed in stupid horror, and seemed to gaze with indifference at all around them...”<sup>20</sup>.

17. Ahots hauen arabera, 1.600-2.000 hildako eragin zituen erasoak (<http://donostia2013.wordpress.com> eta <http://donostia1813-2013.blogspot.com.es>).

18. LAMADRID, Matias Ignacio de. *Diario de un oficial en la Guerra de la Independencia (1813-1814)*, Asturias: Región Editorial, 2009; 66 orr.

19. Horietako batzuk aipatzen dira: Heriz apaizaren zerbitzaria, Manuel Biquendiren emaztea, Xaviara Artola, Carmen Echenagusia, Martin Abarizquetaren ama, Echanizen amaginarreba, Lafonten neskamea, beste neskame bat, Pedro Cipitria, Juan Navarro, Jose Larrañaga txokolate egilea, Jose Mayora, Jose Ignacio Arpide, Felipe Plazaola, Ventura de Moro, Ignacio Galarza, Martín Altuna, Bernardo Campos, Domingo Goicoechea, Jose Miguel de Magra, Jose Ignacio Elizalde, Jose Jeanora, Vicente Oyanarte, bi txokolategile eta haur bat.

([http://www.donostia.org/info/ciudadano/2013\\_recordar.nsf/vowebContenidoId/NT00000986?OpenDocument&idioma=cas&id=A397745401332&cat=Historias&doc=D](http://www.donostia.org/info/ciudadano/2013_recordar.nsf/vowebContenidoId/NT00000986?OpenDocument&idioma=cas&id=A397745401332&cat=Historias&doc=D)).

20. SABINE, Edward. *Letters of Colonel Sir Augustus Simon Frazer, K.C.B. commanding the royal horse artillery in the army under the Duke of Wellington written during The Peninsular and Waterloo campaign*, London: Longman, Brown, 1859, 244 orr.

Baina zorigaitzo handiena ez zen abuztuaren 31n gertatu, ondoren baizik: 1814ko otsailaren 5ean Donostiako udalak, tifus, sukar horiak eta bestelako gaitasunen ondorioz, 1.200 hildako zenbatu zituen. Horietatik, 320 hildako lehen Gipuzkoar Batailoen partaideak ziren, Wellingtonen aginduz bertara joanak hondakinak kendu eta Donostia zaintzeko; agian, hondakin horiek kentzera joan ziren 520 gipuzkoarretatik baten bat egongo zen ere hildako horien artean. 1813ko urrian 300 bat biztanle bueltatu baziren ere, 1814an ia 2.000 pertsona bildu ziren suntsitutako hirian, egurrez eta suntsiketen hondarrekin eraikitako txaboletan eta garbitasun baldintza oso txarretan bizi zirelarik<sup>21</sup>. Irailaren 7an Zubietan bildutakoek hiria berreraikitzea adostu zuten. Berreraiketa luzea eta zaila izan zen, gerak 1815era arte iraun baitzuen, eta Espainiako Koroak zein Gipuzkoako erakundeek ezin izan zuten diruarekin lagundu, baina 1816 eta 1828 bitartean gehiena burutua zegoen. 1816an Fernando VII.ak Erret Agindu baten bidez berreraiketa babestu zuen, eta horrek lanekin hastea eragin zuen; Koroak udaletxea eta aduanaren berreraiketa finantzatu zuen, eta kontsumoaren gaineko zenbait zerga ezartzea baimendu zion udalari, baita Irun eta Pasaiaiko kai-sariak erabiltzea ere hiria berreraikitzearen. Esker onekoak, donostiarrek sekulako harrera egingo zioten 1828an<sup>22</sup>. Donostia laster altxatuko zen bere merkataritzari esker; abendurako, Donostiako eta Pasaiaiko kaiak indarrean zebiltzan<sup>23</sup>.

Asko hitz egin da azken bi urteetan suntsiketaren eragile eta errudunen inguruan, batik bat Iñaki Egañak bere *Donostia 1813. Quiénes, cómo y porqué provocaron la mayor tragedia en la historia de la ciudad* argitaratu zuenetik<sup>24</sup>. Baina nork agindu zuen arplatzea, bortxaketak eta suntsiketa? Eman diren bertsioak antzak dira, baina guk ez ditugu baloratuko, gure ikuspegia eman nahi baitugu<sup>25</sup>. Argi

21. Gipuzkoako Agiritegi Orokorra (G.A.O.), JD CO 68 eta Donostiako Udal Agiritegia (D.U.A.), E, 5, III, 2, 4 eta A, 18, I, 167, 19.

22. PIRALA, Ángel. *San Sebastián en el siglo XIX*. Donostia: Dr. Camino, 2001, 35-47 orr. eta ARAGÓN RUANO, Álvaro eta RILOVA JERICÓ, Carlos. "La penúltima campaña de las guerras napoleónicas (XIII). Un balance histórico sobre un Bicentenario". In: *El correo de la historia. Blog de la Asociación de Historiadores Guipuzcoanos "Miguel de Aranburu"* (<http://blogs.diariovasco.com/correo-historia/2013/09/09/la-penultima-campana-de-las-guerras-napoleonicas-y-xiii-un-balance-historico-sobre-un-bicentenario/>).

23. Gipuzkoako Protokoloen Agiritegi Historikoa, 3/0021.

24. EGAÑA, Iñaki. *Donostia 1813. Quiénes, cómo y porqué provocaron la mayor tragedia en la historia de la ciudad*, Donostia: Txertoa, 2012.

25. AROCENA, Fausto. "En torno a la destrucción de San Sebastián. Careo de culpables". In: *San Sebastián. Revista anual ilustrada*, mayo 1966, 32; ARTOLA, Miguel. *Historia de la reconstrucción...*, op.cit. eta "La rueda de la fortuna, 1700-1846". In: ARTOLA MIGUEL (ed.). *Historia de Donostia. San Sebastián*, Donostia: Nerea; 181-274 orr.; CASTELLS, Luis. "Storming of San Sebastian, o sobre historia y otros relatos". In: LARRINAGA, Carlos. Op.cit.; 139-176 orr.; GUERRERO ACOSTA, José Manuel. "El Ejército Español de Wellington en los Pirineos (1813-1814). De glorias, miserias y ultrajes". In: *Revista de Historia Militar*, I Extraordinario, 2013; 169-264 orr.; GUIRAO LARRANAGA, Ramón. *San Sebastián, 1813*, Madrid: Almena, 2011; MURUGARREN, Luis. *1813. San Sebastián incendiada. Británicos y portugueses*, Donostia: Txertoa, 1993; OLAECHEA, Juan Bautista. *¿Quién destruyó San Sebastián*, Donostia: Biblioteca Doctor Camino, 1973; SADA, Javier, *El asalto a la brecha: Crónica de la destrucción de San Sebastián en 1813*, Donostia: Txertoa, 2010; SAN JOSÉ SEIGLAND, César. "Precisiones sobre el sitio y asalto a San Sebastián en agosto de 1813". In: *Boletín de Estudios Históricos sobre San Sebastián*, 41, 2007; 471-506 orr.

dago Castaños jenerala ez zela izan, Donostiako 79 lekukoetatik seik britaniar-portugaldar soldaduei Donostia erretzeko eta jende guztia akabatzeko haren agindua entzun zutela esan arren —beraz, indar gutxiko salaketa, zeharkakoa eta entzundakoa baita ere, ez zuzena—; horietako batek, hirugarrenak hain zuzen ere, Don Miguel Ignacio Espilla apaizak honako hau esan zuen susmo horien inguruan:

“...le inclinan a creer a que los mismos soldados incendiaron la casa, lo que corrobora la falsa voz que les oyó de que tenían orden del señor General Castaños de matar a todos los habitantes e incendiar a la ciudad, con cuya absurda especie querían sin duda cohonestar las intenciones que trahían de incendiar...”.

Francisco Xavier Castaños Aragorri Urioste Olavide (1758-1852)<sup>26</sup> Madrilen jaio zen, bere gurasoek Gortera egindako bidai batean. Halere, haiek portugalete-tarrak ziren, eta berak ere bizkaitartzat jotzen zuen bere burua. Oso gazte hasi zuen bere karrera militarra, eta Independentzia Gerra hasi zenean Gibraltarreko Komandante nagusia zen. 1808an Sevillako Batzarrak Andaluziako Komandante nagusi hautatu zuen, eta horregatik Dupont jeneralaren aurka egin zuen Bailengo guduan, 1808ko uztailaren 18an. Garaipen horrek bizitza osoko ospea emango zion, baina baita zenbait arazo ere, bere etsaien bekaizkeria piztu baitzuen. 1808an Tuteran gertatutako porrotaren ondorioz, gerra auzi bat jasan zuen, nahiz eta azkenean aske geratu urte bat beranduago. 1813an espainiar 4. Ejertzitoaren buru hautatu zuten, baina hilabete batzuk beranduago, Cadizeko Gorteetako liberal adar ezkertiarrenaren eraginez —Castaños kontserbadorea eta Cadizeko Konstituzioaren aurkakoa zen—, ekainaren 15ean bere kargutik kendu zuten, eta Estatu Kontseilari Konstituzional hautatu. Beraz, ezin izan zuen Gasteizko guduan parte hartu, eta egun horietan Burgos aldera jo zuen. Dena den, Freire jenerala, bere ordezkoa —uztailaren 11n izan zen hautatua—, ailegatu arte, Castañosek hartu zuen 4. Ejertzitoaren behin-behineko ardura abuztuaren 9ra arte. Castaños euskaltzalea zen du-darik gabe, eta euskal jendea babesten saiatu zen, gerrak eragin zituen ondorioak leundu nahian. Ekainaren 27an Burgosen zegoen oraindik, baina handik Tolosa aldera jo zuen, non bere kuartel nagusia ezarriko zuen Freire ailegatu arte. Esan bezala, bertan eman zizkion bere botere guztiak Freire jeneralari, eta abuztuaren 16an Lesaka aldera alde egin zuen Wellington jenerala agurtzeko. Gero, bere kargu berriaren aritzeko, Madril aldera egin baino lehen, Bilbora joan zen. Bertan, abuztuaren 18tik 24ra arte Bizkaiko Jaurerrian sekulako harrera egin zioten. Abuztuaren 18an, Bizkai osoko bidetik gertatu zitzaion moduan, Bilbon omenaldi bat jaso zuen, portugalete-tarra izateagatik. Castañosek Estatu Kontseilari edo Kapitain Nagusiaren tratamenduari muzin egin zion, eta “*como solo Individuo de la Diputación de Provincia, electo en la Junta General del año pasado*” gisa tratatua izatea eskatu zuen. Hurrengo egunean Bilbon sartu zen, eta bertan kanpaika, bibaka, salbaka eta musikarekin eta su artifizialekin hartu zuten Jaurerriko eta Errege ordezkari nagusienek eta baita bertako herri xeheak berak ere: “...los vecinos y forasteros reuni-

26. RODRÍGUEZ CHICA DE BAILÉN, José. *El General Castaños, Duque de Bailén y Marqués de Portugalete. Estudio político-militar de su época*, Sevilla, 1998; 39-289 orr.

*dos en la carrera, impedían el paso por el ansia con que cada uno quería ser el primero en ver a un hijo del país que tantas veces ha coronado su frente de laureles.*"<sup>27</sup>.

Gipuzkoako Agiritegi Orokorreko eta Tolosako Udal Agiritegiko dokumentazioak berresten duen bezala, 1813ko ekainetik abuzturaino doan aldian gerrak zibilengan eta ordurako nahiko pobretuak zeuden udal ogasunengan izan zuen eragina leuntzen saiatu zen Castaños: behin baino gehiagotan idatzi zion Diputazioari Tolosako, Alegiako, Azpeitiko eta Gipuzkoako beste herrietako baserritarrei ordain ziezaien aliatuen tropek egindako kalte, uzta edo ganadu konfiskatzeak zirela medio. Are gehiago, 1813ko uztailan Deban ospatutako Batzar Nagusietan, beharrezkoa izanez gero eta soldadu aliatuen gehiegikerien aurrean, herritarrek osaturiko indar armatua ezartzea proposatu zien probintziako erakundeei; talde honek indarkeriaz edo iruzurrak aritutako soldaduak eta ofizialak atxilotzeko eskumena izango zuen<sup>28</sup>. Esan bezala, eta Jose Ignacio Sagastiren gutun batek egiaztatzen duen bezala, abuztuaren 23rako Gipuzkoa utzi, eta Bilbon zegoen, azkenik Madrilgo bidea hartzeko, bertan aurkitzen baitugu 1813ko irailaren 29an<sup>29</sup>.

Alava jeneralari dagokionez, Wellington bere adiskideari zenbait gutun bidali zizkion, Donostian britainiar eta portugaldar soldaduek izan zuten jarrera aurpegi-ratuz. Horieta gutun batean, nonbait, Alavak Donostian egondako soldadu batek Gasteizen zegoen beste bati bidalitako gutunaren kopia bidali zion; bertan, soldadu ingelesak harropuzkeriaz aitortzen zuen Donostiako sarraskia mendeku moduan egin zutela; baina Wellingtonek ez zuen sinestu nahi gutuna eskuratu arte edo haren fidagarritasuna hobetsi arte. Wellingtonek, ostera, tinko eta zinez defendatu zuen bere soldaduen errugabetasuna, bere gutunetan ikus daitekeen bezala; oso haserre agertu zen bere anaiari bidalitako gutun batean, *El Duende* egunkariak argitaratutako libeloagatik eta Gipuzkoako Buru Politikoak, Villafuerteseko Kondeak, bidalitako erreklamazioagatik, bietan britainiarrek Donostia merkataritza mendeku moduan suntsitu zutela leporatzen baitzitzaion<sup>30</sup>. Azken salaketa hau onargarria bada ere, egun, ditugun baliabideekin, ezin da baieztatu, eta hipotesi hutsa da momentuz.

Ez da ahaztu behar, Donostia erasotu, setiatu eta gero hartu zuten guda-

27. *Extraordinario Diario Patriótico de Cádiz*, 1813-09-07; 365-368 orr. Biblioteca Nacional de España. Hemeroteca Digital (<http://hemerotecadigital.bne.es/issue.vm?id=0004781964&search=&lang=es>).

28. G.A.O. JD IM 3/4/95; Tolosako Udal Agiritegia, A, 1, 65, 655 orr.; RILOVA JERICÓ, Carlos. "La penúltima campaña de las guerras napoleónicas (V). el 14 de julio y el general Castaños". In: *El correo de la historia. Blog de la Asociación de Historiadores Guipuzcoanos "Miguel de Aranburu"* (<http://blogs.diariovasco.com/correo-historia/2013/07/15/la-penultima-campana-de-las-guerras-napoleonicas-v-el-14-de-julio-y-el-general-castanos/>).

29. *Boletín de la Real Academia de la Historia*, XXXI. alea, V, 1897ko azaroa; 361 or. eta *El Conciso*, 8. alea, 1813-10-08; 8 orr. Biblioteca Nacional de España. Hemeroteca Digital (<http://hemerotecadigital.bne.es/issue.vm?id=0004223721&page=5&search=El+conciso&lang=es>).

30. "From what I hear from Alava, I fear that we have not yet Heard the end of this business. He says he has seen a letter from an officer who has in the storm, to another at Vitoria, which was handed about that town, boasting of the outrages committed there in revenge, as the officer says, for the inhabitants having fired upon our troops in the first storm. I believe there were no troops (that did not get in...



rosteek 63 egunetan zehar jardun zutela ia etenik gabe; are gehiago, 1813ko maiatzetik, azken erasoaldia hasi zenetik, ez ziren gelditu frantziarren atzetik joateko. Gainera, Donostiara ailegatu zirenean setioa motza izango zelakoan zeuden, baina Soult-en saiakerek indar gehienak mugara bidaltzera behartu zioten Wellingtoni, eta setioa luzatzera. Halere, esan beharra dago, gertakariak egjatzatu zuten bezala, Donostia gotorleku sendoa zela, eta frantziarrek harresiaren azpian jarritako bolborategiak eztanda egin ezear, setioa ez zela burutuko. Aldi berean, esan beharra dago garai hartako ejertzitoetan ohikoa zela soldataren zati bat gerra harrapakinekin osatzea; Donostia merkataritza gunea zen, eta ustez aberatsa; horregatik, soldaduak sartu zirenean, eskatu zuten lehenengo gauza —hori bai, ura eta jateko zer edo zer eskatu ondotik— dirua eta altxorak izan ziren, 1813ko urrian Arizpe epaileak bildutako 79 testigantzek frogatzen duten legez; balkoietako burdinazko barandak eta guzti eraman zituzten<sup>31</sup>. Testigantza horiek adierazten duten moduan, ezin da orokortu britainiar-portugaldarren jarrera: zenbait ofizial eta soldaduk gehiegikeri izugarriak egin bazituzten ere, beste batzuk, aldiz, donostiarrek babesten saiatu ziren, eta gogotik ordaindu zuten, bere biziekin edo zauriekin<sup>32</sup>. Testigantzek eta beste zenbait dokumentuk frogatzen dutena zera da: Wellington eta bere jeneralek ez zutela agindurik eman Donostia erre eta arpilatzeke; erdi mailako ofizialek eta soldaduek, britainiarrek zein portugaldarrek, berriz, bere kasa jardun zuten, gehiegikeriak egin ez eta onartuz.

Bukatzeke, badirudi zutik geratzen zen herenaren erreketa ere, nahita eta asmo txarrez eginga izan zela: zenbait lekukok erasotzaileak suzko kartutxoak eta kukurutxoak egiten, eta horiekin etxeei su ematen ikusi zituztela adierazten dute<sup>33</sup>. Setioak iraun zuen bitartean, horren inguruko zurrumurruak egon ziren, bai hasieran bai bukaeran, Matias Lamadridak adierazten zuen moduan<sup>34</sup>:

“Cuando el 28 (abuztua) estuve viendo su sitio, un paisano del mismo San Sebastián que se había fugado de la Plaza después de roto el fuego, me dijo: Señor parece ser que los ingleses quemarán la ciudad luego que la tomen, según he oído. Estas fueron sus palabras, que nunca creí, y trate de que hiciese él lo mismo, y las que después he recordado varias veces. Sea como quiera, lo que es cierto y ciertísimo es que San Sebastián no existe y que lo debe a los aliados. Si para esto hubiere alguna razón, lo ignoro”<sup>35</sup>.

---

*... and were made prisoners) near enough to be fired upon by the inhabitants in the first storm. However, if such a letter has been written, it shows that I have been mistaken, and that the officers did not obey my orders...I am now inquiring about the writer of that letter...”. GURWOOD, John. Op.cit. 11. alea; 200 orr.*

31. “...nosotros venimos aquí por dinero y no a otra cosa, ivenga pronto! Si no, te matamos...”. Manuel Angel Yraramendi zazpigarren lekukoa.


32. Besteak beste, Bigarren lekukoa, Don Pedro Ignacio Olañeta.

33. Adibidez, bosgarren lekukoa, Rafael Miguel Bengoechea; hamaseigarrena, Domingo Echave; hamazazpigarrena, Vicente de Soto edo hemeretzigarrena, Juan Bautista Azpilcueta.

34. 1813ko abuztuaren 4an Pasaiatik donostiar batzuek Alava jeneralari bidalitako gutunean, hiria hartu eta berehala erre egingo zutela entzun zutela britainiar-portugaldarrei adierazi zioten. D.U.A., E, 5, III, 2, 4.

35. LAMADRID, Matias Ignacio de. Op. cit.; 66 orr.

Horren guztiaren atzean, itxuraz, mendekua zegoen, frantziarrei lagundu izanagatik eta frantsestuak izatearen aitzakiagatik, setioa hain luzea izateagatik<sup>36</sup>. Donostiar asko britainiar-portugaldarrei harrera ematera atera ziren “*Vivan los aliados y viva España*” oihukatuz<sup>37</sup>, eta ez zuten ulertu haien jarrera, kontuan izanik uztailaren 25eko lehen erasoan izandako zaurituei lagundu zietela eta beren buruak espainoltzat jotzen zituztela<sup>38</sup>.



Erasoa Biriatuan, (Batty – Captain, Campaign of the left wing of the allied army, in the western Pyrenees and south of France, in the years 1813-14 under Field-Marshal the Marquess of Wellington, John Murray, London, 1823, Koldo Mitxelena Kulturunea. Gipuzkoako Foru Aldundia / Koldo Mitxelena Kulturunea, 5502, pag. 26 – pag. 27 (Lámina 2))

## 2. Taula: Aliatuek izandako galerak San Martzialgo guduan, 1813ko abuztuaren 31tik irailaren 1era arte

	Britainiarrak	Portugaldarrak	Espaniarrak	Guztira
Hildakoak	51	88	261	400
Zaurituak	334	386	1.347	2.067
Galdutakoak	32	53	71	156

Iturria: GURWOOD, John, Op. cit., 11. alea, 71 orr.

36. Hogeita hamabosgarren lekukoa Tomas de Brevilla.

37. Hogeita zortzigarren lekukoaren, Nicolas Sarastiren, esanetan.

38. Laugarren lekukoa Antonio María Goñi, seigarren lekukoa Jose Manuel Berecearte, zazpigarren lekukoa Manuel Angel Yraramendi edota berrogeita seigarren lekukoa Manuel Biquendi.

Donostiako bataila gertatzen ari zen bitartean, Bidasoa ibaiaren inguruan Soulten gudarostek ibaiaren beste aldera igaro, eta San Martzial mendia eskuratu zuten. Soultek ia 40.000 soldadu bildu zituen Hendaia eta Biriaturen inguruetan, Reille, Clauzel eta Drouet d'Erlon jeneralen agindupean. Bere indarrak bitan banandu zituen, alde batetik San Martzialgo tontorra eta, bestetik, Bayonnettekoak menperatzeko. Reillek eta Drouetek Oiartzunerantz egin behar zuten, eta han Clauzelekin batu, Hernanitik Donostiarantz abiatzeko. Baina Oiartzuneraino iristeko Reillen 18.000 soldaduek Freiren 4. Ejertzitoko 15.000 soldadu garaitu behar zituzten San Martzialen. Abuztuaren 31n Soulten gudarostek Bidasoaren Hegoaldera igaro ziren, eta San Martzial aurrean kokatu ere. Batailak hiru eraso nagusi izan zituen frantsesen eskutik. Goizeko 9tan Saroiako tontorra menperatzeko lehenengo erasoak kale egin zuen. Bigarren erasoak 11etan hasi zen, berriz ere Saroia bereganatzeko asmoarekin, eta San Martzialgo gailurrera eraman zituen frantsesak, bertako ermita eskuratuz. Halere, ordubete baino gehiagoko borroken ondotik, frantsesak atzera egitera behartuak izan ziren. Eguerdiko ordu bietan Soultek hirugarren erasoak agindu zuen, San Martzial, Saroia eta Portu alderantz, baina ordurako Freirek Mendizabalena taldearen laguntza zuen. Arratsaldeko 3etan Soultek porrota onartu, eta Baiona aldera jo zuen. Hasiera batean, ingelesek ez zuten guduan parte hartu, eta espainiarrei utzi zieten frantsesen erasoei aurre egiten; Wellingtonek nahiago izan zuen erreserban mantentzea bere britainiar-portugaldarrak, espainiarrek frantsesei eusten ez bazieten erabiltzeko. San Martzialgo guduan, abuztuaren 31tik irailaren 1era arte, frantsesek 4.000 galera eta aliatuek, hau da, britainiarrek, portugaldarrek eta espainiarrek (gipuzkoarrek barne) 2.623 galera izan zituzten: 400 hildako, 2.067 zauritu eta 156 desagertu. Frantsesen artean 2.000 baino gehiago ito egin ziren Bidasoa ibaian Frantziara igarotzerakoan; guduarekin batera, sekulako ekaitza gertatu zen, eta, ondorioz, Bidasoa asko igo zen<sup>39</sup>.

### **3.3. Urdazubi eta Errobiko batailak**

Garaipena eskuratu arren, Wellington ez zen ausartu Frantzian sartzen, ez baitzuen kanpaina luze bat bermatzeko horniketarik, kontuan izan behar baita Penintsula suntsituta zegoela, eta hornidura guztiak Britainia Handitik etorri behar zirela itsaso. Gainera, Iruñea frantziarren eskuetan zirauen, eta hori oso arriskutsua izan zitekeen eraso frantziar lurraldean hasiz gero. Beraz, Wellingtonek Iruñea eskuratu arte itxaron zuen; hain zuzen ere, 1813ko urriaren 31ra arte. Baina aurrerapausoak ez ziren errazak izango, Soult Urruña, Sara, Ainhoa, Ezpeleta, Kanbo, Ziburu, Donibane Lohizune eta Sokoan gotortua baitzegoen. Aliatuen artean, eskuin adarrean, Hill, Stewart, Hamilton ziren britainiar dibisioen buru, Hamilton Portugaldarren Dibisioaren buru eta Pablo Morillo espainiar 4. Ejertzitoaren lehen Dibisioaren buru; erdialdeko adarrean, Beresford Mariskala hiru britainiar Dibisioekin; Pedro Agustín Giron Andaluziako Erreserbako Ejertzitoarekin; Larrun inguruan Alten Ba-

39. RODRÍGUEZ INSAUSTI, Fernando. Op.cit.; 155-160 orr.

roiaren Dibisio arina eta Francisco Longaren seigarren Dibisioa zeuden. Hopek, Grahamen ordezkioak, eta Freire jeneralak, hirugarren eta laugarren Dibisioekin As-kainerantz joan behar zuten, baina frantsesak erasotu gabe.



Urdazubiko bataila, (Heath, W.; Sutherland, T. (grabatzailea), *Martial achievements of Great Britain and her allies from 1799 to 1815*, Printed for Js. Jenkins by L. Harrison & J.C. Leigh, London, 1815; Koldo Mitxelena Kulturunea. Gipuzkoako Foru Aldundia / Koldo Mitxelena Kulturunea, 094 MAR, pág. 98).

1813ko azaroaren 10eko egunsentian hasi zen Urdazubi edo Ugarabako gudua (Nivelle), ziurrenik, Napoleonen Leipzigeke porrota Baionara eta frantziar gudarosteengana azaroaren 8 edo 9an ailegatu zela aprobetxatuta. Lehenengo erasoaren ondorioz, Sara eta Larrungo inguruak eskuratu zituzten aliatuek. Goizeko 10etan hasi zen eraso orokorra erdialdetik, eta arratsaldeko ordu bietarako Kanbo eta Ainhoako defentsek etsi zuten. Ordubeteko etenaren ondotik, Senpere inguruan gertatu ziren borrokak, Urdazubi edo Ugaraba ibaiaren beste aldean. Donibane Lohizune hartuko zutelakoan, frantsesek azaroaren 11n herria utzi, eta Baiona aldera alde egin zuten, Urdazubi ibaia zeharkatzen zuten zubi guztiak apurtuz. Hori dela eta, Hope jeneralak ezin izan harrapatu, Ziburu eta Donibane Lohizuneraren arteko zubia berreraiki behar izan baitzuen, soldaduen eta kanoien igarobide erraztearen. Borroka hauetan aliatuek 3.000 gizon galdu zituzten, eta frantsesek beste hainbeste, gehi 51 kanoi, 1.500 preso eta 400 zauritu. Wellingtonek

bi edo hiru egun eman zituen Senperen, eta, gero, Donibane Lohizunen, atertzen zuten bitartean. Frantsesen kontraerasoa ekiditearren, Wellingtonek babes marra bat eraiki zuen Miarrizetik abiatuta Errobi ibaira arte, Arrauntz, Ustaritz, Larresore eta Kanbo zeharkatuz. Wellingtonek arreta handia jarri zuen bertakoak ez gogaitzeko, frantsesei Espainian gertatu zitzaiena ekiditeko; horregatik, bere soldaduekin zein espainiarrekin gogor jokatu zuen. Hala, espainiarrak etxera bidali zituen, Frantziako Iparraldetik Europako aliatuak bertan sartzeko zain. Freirek Irunen ezarri zuen bere kuartel nagusia, eta han geratu ziren 4. Ejertzitoaren hirugarren, laugarren eta bosgarren Dibisioak eta bosgarrenaren lehen Brigada. Ingelesekin bakarrik Morillo jenerala geratu zen, lehen Dibisioarekin. Espainiar 4. Ejertzitoaren bigarren, zazpi-garren eta zortzigarren dibisioak eta bosgarrenaren bigarren Brigada Iruñea eta Donostia zaintzen eta Santoña eta Jaka blokeatzen geratu ziren. Andaluziako Erreserba Ejertzitua Baztanen egon zen, baina, gero, Gares aldera jo zuen.

1813ko abenduaren 9 eta 13a bitartean Errobiko (Nive) bataila gertatu zen. Europako aliatuek Ekialdetik erasotzen zuten bitartean emango zen etenaldia hasi baino lehen, Wellingtonek frantsesak Errobitik urrun nahi zituen, baina, horretarako, Baiona erasotu behar zuen. Azaroaren 9an Hillek Kanbotik eta Beresfordek Ustarizetik zeharkatu zuten Errobi ibaia. Morillok ere egun berean igaro zuen ibaia, eta Uzkurainen geratu zen. Alteenek eta Hopek, berriz, Miarritze eta Angelu hartu zuten, eta brigada batek Hasparne eskuratu zuen. Egun bat beranduago, frantsesek aliatuak kontraerasotu egin zituzten, baina Hopek eta Alteenek geldiarazi zituzten, 500 bat preso hartuz. Frantsesen saiakerak errepikatu egin ziren hurrengo egunetan, baina inongo arrakastarik gabe. Azaroaren 13an Soultrek bere azken erasoa abiarazi zuen Baionatik Donibane-Garazira zihoan bidetik. Bost eguneko borroketan aliatuek 5.029 gizon galdu zituzten, ia erdia portugaldarrak, eta frantsesek, berriz, 6.000 gizon, hildakoak, zaurituak eta presoak kontuan harturik.

Oraingo honetan, 50.000 soldadu eta 6.000 zaldi izan arren, Soultrek ez zuen erasora jo; eta Baiona inguruan geratu zen lubakiek lagunduta; Donibane-Garazi eta Nabarregoseko gotorlekuak indartzen. Wellingtonek, esan bezala, bere horretan jarraitu zuen, erasotu gabe<sup>40</sup>. Neguko klimatologia txarrak eta bideen egoera kaskarrek eragindako etenaldiaren ondotik, borrokak 1814ko urtarrilean hasi ziren berriro, baina garrantzi handiegirik gabe. Urtarrilaren 5ean Soult saiatu zen Donibane-Garazi eta Baionaren arteko bidea askatzen, baina Wellingtonek kontraeraso batekin erantzun zion. Otsailerako Baiona eta Donibane-Garazi blokeatuak geratu ziren. Hil horretako 23 eta 27a bitartean burutu zuten aliatuek Baionaren setioa, non 10.000 soldadu frantses baitzeuden.

Azken bataila gertu zegoen. Morillo Nabarregosen aurrean agertu zen otsailaren 24an. Soultrek Pau eta Orthez ingurura alde egin zuen, eta, gero, handik, aliatuen erasoak zirela medio, Bordele aldera. Otsailaren 27an Orthezeko gudua eman zen, eta Soultrek Tarbes eta Toulouserara alde egin zuen, non 28.000 soldadu

---

40. BEATSON, F.C. *Wellington: The Bidassoa and Nivelle*, London: Tom Donovan, 1995; 143-198 orr.

inguru bildu zituen; bertan gertatu zen 1814ko apirilaren 10ean Gerra Napoleoni-koaren azken aurreko bataila. Apirilaren 14an, Thouvenot jeneralaren agindupean, gerra amaituta zegoenean, Baionan setiatuak zeuden gudarosteek gaueko irteera egin zuten britainiar setiatzaileak ezustean harrapatuz eta sekulako sarraskia eraginez. Apirilaren 28an, Paristik armistizioaren testua iritsi ostean, Baionak amore eman zuen. Azkenik, ekainaren 22an aliatuak Parisen sartu ziren. Horrela bukatu zen Gerra Napoleonikoen azken aurreko bataila euskal lurraldeetan<sup>41</sup>. Aurrerantzean, gauzak ez ziren berdin izango; garai hartako gerrek eragin sakona izan zuten euskal lurraldeetako gizartean, ekonomian eta antolamendu politikoan.

---

41. MUÑOZ MALDONADO, José. *Historia política y militar de la Guerra de la Independencia de España contra Napoleón Bonaparte, desde 1808 a 1814*, III. alea, Madrid: Inprenta de José de Palacios, 1833; 506-518 orr. eta GUERRERO ACOSTA, José Manuel. Op. cit.; 225-251 orr.